BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4215

AGINDUA, 2011ko uztailaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Mungiako (Bizkaia) «Fundación Escuelas Ventades» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Mungiako (Bizkaia) «Fundación Escuelas Ventades» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularraren ordezkariak baimena eskatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko eta Haur eta Lehen Hezkuntzako unitateak gehitzeko. Aztertu da horri dagokion espedientea.

Espediente horri Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Ikusi dira 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntza emateko ikastetxe pribatuei baimenak emateari buruzkoa (9ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (martxoaren 12ko BOE); eta 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0tik 3 urtera bitarteko umeentzako Haur Eskoletarako gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (19ko BOE), eta 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko 0tik 3 urtera bitarteko umeentzako Haur Eskolak arautu zituen Dekretuaren artikulu batzuen indarraldiari eutsi diona; arlo honetan aplikatzekoak diren gainerako legeak ere kontuan izan dira. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Honen jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari 2011-2012 ikasturtetik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko, Haur Hezkuntzako 1. zikloko 3 unitate, Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3 unitate eta Lehen Hezkuntzako 2 unitate gehitzeko baimena ematen zaio:

Kode zenbakia: 48006279.

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Fundación Escuelas Ventades».

Titularra: Fundación Escuelas Ventades.

Helbidea: Bentades, 7.

Udalerria: Mungia.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakastea; 4 unitatetarako edukiera.
- Haur Hezkuntzako 1. zikloko 3 unitate gehitzea.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3 unitate gehitzea.
- Lehen Hezkuntzako 2 unitate gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan: 6 unitate, honelako edukierakoak:

● 2 unitate urtebetetik beherako ikasleentzat, unitate bakoitza 8 ikaspostutarako edukiera duena.

● 2 unitate urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat, unitate bakoitza 13 ikaspostutarako edukiera duena.

● 2 unitate bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat, unitate bakoitza 18 ikaspostutarako edukiera duena.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.

– Lehen Hezkuntza: 8 unitate, 200 ikaspostutarako edukiera.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 4 unitate, 120 ikaspostutarako edukiera.

– Hezkuntza Berezia: unitate 1.

2. artikulua.– Agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari dagokienez, indarrean dauden legeak bete behar ditu ikastetxeak. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntzen deialdien bitartez laguntzak lortuko direnik.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 4a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.